

**ZER** Nobela. [Kritika \(Javier Rojo\)](#) . [Kritika \(Amaia Alvarez\)](#)

**NORENTZAT** Gazte literatura zabal bat: 16 urtetik aurrera. [Sinopsia](#) .

**HELBURUA** Bizenta Mogel Elgezabal andre idazlearen bizitzara eta bizimodura hurbiltzea datu errealetan oinarritutako fikzio baten bidez eta fikzio-prozesua bera delarik ardatz eta eragile

**LANGAIAK.** [Bideoa:](#) Oizmendi telebista.

**XVIII-XIX. mendeko andrazko aktibo baten figura**

Aurrekari kultural eta soziala, gaurko gazteentzat (nahiz helduentzat)

## **Euskararen balioa**

Ahalmena, idatzizko hizkuntza kultuen pare jartzeko nahia eta borondatea

## **MARKINA XVIII-XIX. mendeetan**

Idazlearen habia: hiribildua/herria, kaleak, bizimodua, giroa, pertsonaia ilustratuak

## **ABANDO eta Bilbo, XIX. mende hasieratik erdialderaino**

Euskara hirian, giro soziala, aldaketak, karlistak eta liberalak

## **Euskal Herriko sasoi garrantzitsu baten historia zati bat**

Erregimen Zaharraren amaiera/aldi berri baten hasiera: Ilustrazioa, Napoleondar gerrak, I. karlistada

## **OSAGAIAK**

· **Narratzaileak: Mirari 17 urteko euskaldun amerikarra eta izeko Amaia ikertzaile eta sortzailea**

Irakurlea kokatzen lagunduko digute gaurko bizimodua eta ordukoa alderatuz

Bizentaren belaunaldiko zenbait artista gazte europarren zertzeladak tartekatuko dituzte (J. Austen, Mozart)

· **Bizenta Mogelen idatziak**

**Errealak:** eskutitzak, ipuinak, hiztegiak, itzulpenak

**Fikziozkoak:** “balizko” ezkutuko egunkari bat

· **Datu historiko, etnografiko eta antropologikoak**

· **Letren azterketa grafologikoak:** Irune Ibarra EHU-ko Hezkuntza Zientzietan irakasle eta grafologoa

· **Pertsonaiak**

**Errealak:** Bizentaren senideak (ama, neba Juan Jose eta ahizpak, osaba Juan Antonio Mogel, osabaren lagun ilustratuak eta Frantziatik ihes egindako apaizak, Vargas Ponce jauna, Humbolt jauna, Bizentaren senar Eleuterio Basozabal, haren aita, Bilboko euskaltzaleak ...

**Fikziozkoak:** baserritarrak sinbolizatzen dituen Maritxu esneduna eta haren alaba Joxepa, gaur egungo narratzaile Mirari eta Amaia, Karmeldarren komentura datozen erromesak ...

**ORRI KOPURUA** 160 orri

**ARGITALETXEA** Egilea editore. Durangoko *BIKO komunikazioa* enpresa bitartekari.

**BABESLEA** Markina-Xemeingo udala

**LAGUNTZAILEAK** Bizkaiko Foru Aldundia (EIE-ren *Idazleakaz* programa), EKE eta Hendaiako Abadia Eremuko *Nekatoenea a*  
rtisten etxea

**AURKEZPENA** □ □ □ 2014ko ekainaren 20an, iluntzeko zortzietan, Markina-Xemeingo udaletxean